


KARKARA



KONTXAKO BANDERA

**GERTU BAI,
ESKUAN EZ**



Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Ubegun industria gunea, 4 AIA-ORIO

22, 26, 28, 49, 55 eta 60 eserleku dituzten literadun autobusak ditugu.

943-13 28 93 · 656 78 29 99 (Gabino)
Fax-a: 943-89 05 62
alustiza@autocaresalustiza.com



Olaskoegia z/g
AIA-ORIO
943-13 04 38

ANORGA TXIKI, S.L.
KRISTALDEGIA

Oria etorbidea, 4
LASARTE-ORIA

anorgatxiki@gmail.com
www.cristaleriaanorgatxiki.com
943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak



Lurretik
Garbiketak
SERVICIO INTEGRAL DE LIMPIEZA

- Garbiketa orokorrak
- Etxebizitzak
- Bulegoak
- Obra amaierak
- Garajeak
- Ostalaritza

Santio erreka 41, Aia-Orio
636 18 82 92 / info@lurretik.es

edaritegia **Antilla** *jatetxea*

Abeslari kalea, 2
ORIO
943-83 23 09

- Menuak
- Plater konbinatuak
- Errazioak
- Ogitaratekoak

Pelotari, 5 · ORIO
943-83 00 34
autolan13@hotmail.com

AUTO - LAN C. B.



arkaitz taberna
... uio ...

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

Terma ederrarekin giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943-83 16 57



Zerbitzu teknikoak
24 ordu

iturgintza · gasa · berogailuak

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoaren instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dutxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

Arrantza kalea, 3 · ORIO
fontana-jul@hotmail.es
www.fontaneria-fontana.com
943-53 98 88 · 661 26 28 28

azkue
karrozeriak

Ubegun industrialdea, 7
AIA-ORIO
943-83 51 86

Carmen eta Txomin
ARRAINDEGIAK



TXOMIN ARRAINDEGIA
Eusko Gudarien kalea, 44
943-83 27 47

CARMEN ARRAINDEGIA
Arizaga kalea
943-83 05 37



KARKARA 431

2021-09

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- 5 **Iritzia** Iñigo Gaiton
Gamarran
- 6 **Hitz tantak** Iñigo Gaiton
Maria Angeles eta Santos Uranga
- 8 **Izpiak eta hizkiak** Iñigo Gaiton
Itzaliz doazen argiak
- 10 **Gutunak**
- 12 **Oroimenaren kutxa** Iñaki Iturain
Gure fauna: balea, mirotza, bixigua...
- 17 **Herrian galdezka**
- 18 **Elkarrietzeta** Onintza Lete Arrieta
Jakes Goikoetxea
- 22 **Akuilua hartuta** Malen Iturain
Uda ederra, pandemia garaian
- 23 **Nire honetan** Mireia Galarza Bastida

- Nahasbidea*
- 24 **Argazki galeria** Mireia Galarza Bastida
- 26 **Erreportajea** Iñigo Gaiton
Kontxa: aurrean bai, banderarik ez
- 37 **Moila bazterretik** Egoitz Dorronsoro
Ardura soziala
- 39 **Osasuna** Leire Vitoria
Iraila, aldapan gora
- 41 **Euskara** Orain Herri Plataforma / Orioko PSE-EE
Nolako Orio nahi dugu 10 urte barru?
- 44 **Zerbitzuak**
- 45 **Agenda**
- 46 **Hasi bertotan** Josu Arruti

KARKARA



TOKIKOM

Argitaratzailea
Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-83 15 27
karkara@karkara.eus
www.karkara.eus
Lehendakaria
Rikardo Uzkudun

Erredaktoreburua
Aiora Larrañaga
Solaberrieta
Erredaktore taldea
Iñigo Gaiton
Dorleta Agiriano Lai
Onintza Lete Arrieta
Onintza Aiestaran
Elizabete Manterola
Rikardo Uzkudun

Diseinu arduraduna
Maria Lopez
Publizitatea
Leire Martija
Zenbaki honetako kolaboratzaileak
Iñaki Iturain
Malen Iturain

Leire Vitoria
Naiara Larrañaga
Mireia Galarza Bastida
Banatzaileak
Endika Ruiz (Orio)
Manex Dorronsoro (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-346/90
ISSN: 1132-1105
Tirada: 3.450 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



AIAKO
udala

PUBLIZITATEA



**IGLESIAS
SARRAILAGILEAK**

iglesiasserrajereros@yahoo.es
www.iglesiasserrajereros.com
Erribera kalea, 14 · ORIO
637 72 33 08

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

24orduko zerbitzua

Gabon
TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7
943-83 06 09



Joseba
AROTEGIA · CARPINTERIA

687 683 427
josebaarotza@gmail.com

ATEAK
ZOKALOAK
ARMAIRUAK NEURRIRA
LEIHOAK
ESKAILERAK
AROTEGIA OROKORREAN



GARMENDIA

Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak

943-83 44 66 · 688 75 59 48
Ibai Ondo, 1 · ORIO
info@egarmendia.com



KAIOA

kaioa_denda
www.kaioa.es

**ITZIAR
KIROLAK**

Eusko Gudarien kalea, 23
ORIO
943-83 31 03



%100 etxean egina
**PIZZERIA
KALETA**

Arrantza kalea, 10
943-24 89 46



Kolon Txiki
edaritegia · jatetxea

Herriko Enparantza 4
ORIO
Tel.: 943-83 00 44



**KATU
HORIA**
albaritaritza klinika


ESTROPALARI, 10
20810 ORIO
tel. 943 11 66 99

LARRIALDIAK
668891129



kutixi
kafetegia

Aritzaga 9 · ORIO · 943-13 15 17



**LASTER
DESATASCOS**

- Libraketak
- Hobi septiko eta putzu beltzen garbiketa
- Uholdeetako uren hustuketa
- Teilatu hodian garbiketa
- Saneamendu sareen ikuskapena
- Puzkatutako hobien geolokalizazioa
- Ur jario atzematea
- ...

desatascos@desatascoslaster.com
www.desatascos.com

24orduz 688 88 65 36 (Larrialdia)

Abaromendi 3, 20810 ORIO · Sagar Erreka 21-A, 20590 SORALUZE · 943-75 14 31 (bulegoa)

Gamarran



IÑIGO GAITON

Araba aldera jo genuen familia giroan uztailean, hiriburuan egun batzuk egin eta alaba txikiarekin inguruko igerilekuetan ibiltzeko asmoarekin. Erdi-ipurdiko eguraldiarekin, Gamarran izan ginen bigarren egunean, baina horixe, izan bakarrik; ez genuen igerilekuetara sartzeko aukerarik eduki. Lehorrean geratu ginen.

Harrerako langileak azaldu zidanez, izurriaren kontrako edukiera mugak tarteko, modu bakarra egon da aurten Gasteizko Udalak kudeatzen dituen igerilekuetan freskatzeko: denboraldi osoko txartela aterata. Egunpasa joandakoentzat, beraz, ezer ez. Harritu egin ninduen neurriak, eta egia aitortzera, mindu ere bai.

Izan nitzakeen aukera apurrak zukutu nahian, gezur txiki batekin saiatu nintzen aurrena: leihatilako langileari azaldu nion Gipuzkoatik espresuki joan ginela haraino, egunpasa egiteko ideiarekin. Ez zen egia osoa, baina azken batean, balio zezakeen. Ezta zirkinik ere.

Mutilaren hoztasunarekin —eta eguerdiko bero saparekin—, berotzen hasi nintzen. Epelak ziren haren azalpenak, gero eta sutuagoak nireak. Izerdi patsetan, nire pentsamenduak burbuila batean sartu ziren kolpetik; bueltaka hasi ziren gero, eta begirada ere lanbrotu egin zitzaidan. Buruan nuen nahasmenak, biok soinean genituen maskarek eta tartean genuen kristalak komunikazioa zaildu arren, poliki-poliki, langileari *domingero* baten traza hartzen hasi nintzen: haren aurpegiera, indiferentzia hura, gauzak adierazteko modua, ahotsaren tonua...

Ez zen inongo zalantzarik, *domingero* bat nuen aurrean: bere lanegunean, baina *domingero bat*. Uda garaian gure hondartza betetzen duten ehundaka arabar horietako baten aurrean jarri ninduen patuak, aurrez aurre. Oraingo honetan, tamalez, berea zen azken hitza. Han, Gamarrako igerilekuen sarreran, etxean jokatzeko zuen.

Nire onetik aterata, hondartzan harrapatzen banuen belarritik tiraka aterako nuela esan nion buila batean, haren etxekoekin, kuadrillakoekin eta trasto guztiekin batera, aforoa kontrolatzen duen semaforoa berdean jarri arte.

Nola ba. Aho txikiarekin botatako gezurraren eragina hutsala izan zela ikusitakoan, belarriak jaitsi eta buelta hartu nuen autora.

Txertoari esker, birusak gero eta gutxiago hiltzen gaitu zorionez, baina, oraindik ere, lurtean mukiaren marka uzten duen barraskiloak nola, gizatasuna arrastan galtzera behartzen gaitu izurriaren aurkako borrokak. Ea, apurka bada ere, neurriei neurria hartzen hasteko gai garen. Ikastetxeetako irakasle eta ikasleak datozkit gogora, ikasturte berria hasi den honetan. ■■■

**EA, APURKA BADA ERE,
NEURRIEI NEURRIA
HARTZEN HASTEKO GAI
GAREN IKASTURTE
BERRIAN**

Maria Angeles eta Santos Uranga

TESTUA ETA ARGAZKIA: IÑIGO GAITON

Maria Angeles Uranga (Orio, 1962) eta Santos Uranga (Orio, 1960) anai-arrebek urteak daramatzate Uranga burdindegian lanean. Garai modernoetan, Internet bidezko salmenten oldarraldiari eusteko gai izan dira, eta zorionez, lokalean ez zaie martxarik falta. Produktuz josita dituzte dendaren korridoreak, eta salmahaiaren atzean batera eta bestera aritzen dira lanean, geratu gabe. Seinale ona.

Noiz ireki zituen ateak Uranga burdindegia?

Maria Angeles Uranga: 1970eko uztailaren 10ean. Aita bizitza osoan aritu zen itsasoan arrantzaletan, baina lehorrean ere nahi zuen negozioaren bat izan, eta ama eta bien artean jarri zuten martxan burdindegia.

Santos Uranga: Aita izatez arotza zen, baporean lan egin arren. Erreminta artean ibiltzen zen beti, hala gogoratzen dut. Arrantzan adina trebezia zuen arotz modura!

Gurasoengandik jaso zenuten ofizioa, eta etxeko indarrarekin jarraitu duzue lanean. Anai-arrebak izanik, nolako harremana duzue?

M.A.U.: Primeran moldatzen gara, baina egunero izaten da eztabaida hemen. Ez dugu egun bat ere pasatzen liskarrik eduki gabe... kar-kar-kar.

Denboraren joanarekin, asko aldatu al da burdindegiko eskaintza?

M.A.U.: Bai. Gure amak dioenez, ireki zutenean *taladroa* ez zen existitu ere egiten. Kristoren iraultza ekarri omen zuen merkatura atera zutenean. *Tirafondoak* ere lehen mota bakarrekoak izaten ziren, eta orain pila bat daude.

S: Hala ere, badira hasieratik aldatu ez diren produktuak: urarekin nahastuta lan egiteko pinturak, adibidez.

Denda txiki ugari iktxi dituzte ateak azken urteetan, besteak beste, kontsumo ohiturak asko aldatu direlako. Zuek martxa onean jarraitzen duzuela dirudi.

M.A.U: Internetek asko estutu ditu negozio

txikiak, hori hala da, baina zorionez, jendeak jarraitzen du hona etortzen. Burdindegi batean gauza asko saltzen dira, eta askotan, lanean edo etxeetan momentuan behar diren produktuak izaten ditugu eskura: silikona, garbiketarako gauzak, iltzeak, erremintak...

S.U.: Bestalde, guri babes handia eman digu kooperatiban sartu izanak. Duela hamabost urte eman genuen urratsa, eta horrek libratu gaitu, hein handi batean. Euskal Herri osoko burdindegien sare bateko parte gara.

Kooperatibak zer eskaintzen dizue?

S.U.: Bezeroei prezio hobeak eskaintzeko aukera, batetik. Bestalde, falta diren produktuak eskatu eta hurrengo egunean ekartzen dizkigute Beriainen (Nafarroa) dugun biltegitik. Asko salbatzen gaitu horrek guztiak.

Internet erabiltzen al duzue promoziorako edo beste zerbaiterako?

S.U.: Gutxi, egia esan. Etxe batean behar diren produktu guztiak fisikoki eskura izatea da gure indargunea, eta horri eutsi nahi diogu. Oso adi egoten gara jendearen beharrianetara, eta horien arabera joaten gara denda hornitzen.

M.A.U.: Bezeroek behar duten guztia hemen eta orain izatea da gure balioa.

Bitxikeria modura, zer saltzen duzue gehien?

M.A.U.: Burdindegietan produktu salduena Loctict zela entzun nuen behin. Litekeena da. Erratzak eta silikona ere bai.

S.U.: Eta torlojuak. Giltzak ere asko egiten ditugu, kopiak. Egunero-egunero.

Eta ba al da nabarmen behera egin duen produkturik?

M.A.U.: Koñakaren kopak! Garai batean izugarri piloa saltzen ziren, eta gaur egun bat ere ez. Dozena erditik behera urtean.

Hemendik hamar urtetara, irekita ikusten al duzue negozioa?

S.U.: Ari gara erretiroan pentsatzen, baina itxura guztien arabera, etxean ez dugu erreleborik izango. ■■■■



Itzaliz doazen argiak

ARGAZKIA: IÑIGO GAITON

TESTUA: IÑIGO GAITON

Patxi Olidenen lokalean argazkiak egiteko aukera izan nuen udaberrian. Salgai zegoela jakin bezain pronto, haren etxekoekin harremanetan jarri nintzen, eta berehala utzi zidaten giltza. Ia hiru ordu egin nituen kamerarekin, batera eta bestera, zegoen guztia dokumentatu nahian.

Gauza piloa zituen han Danbolinek: erremintak, surf taulak egiteko txantiloak, txalupa bat, partiturak, bere idatziak, liburu mordoa...

Azken horiei erreparatuta, argi ikus zitekeen zerk bizi izan zuen gizona urte luzez: musika, euskara, erlijioa, mikologia eta fisika izan zituen aztergai eta langai, beste hainbat alorrez gain.

Mundu zaharreko beste argitxo bat itzali da aurten, Eusko Gudari kalean oraingoan. Hura ezagutzeko aukera izategatik eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen. ■■■



LAS SETAS

GUIA FOTOGRAFICA
Y DESCRIPTIVA

800 especies a todo color



RAMON MENDAZA RINCON DE ACUÑA
GUILLERMO DIAZ MONTOYA
de la Sección de Micología de IBERDUERO

IBERDUERO

Errioan ezin bainatu?

IÑAKI ITURAIN

Abuztuak 20. Orioko hondartza ondoko barran nintzen, erriora begira, eta atentzioa eman zidan errio erdian zihoan uretako motoak. Nire artean, "honek aisa irabaziko lioke estropada traineruari". Azkar zihoan, bai. Eta gogora ekarri zidan bi egun lehenago errioaren beste aldeko arranplan, oraingo portuaren ondoko horretan, entzun nuen elkarrizketa. Eztabaida kezkarri baten lekuko izan nintzen. Uretan plisti-plasta, Oribarzarren bizi den familia bateko kideak; eta moilatik, berriz, haiekin hizketan emakume bat, bizkaraldean *Portu Zuzendaritza* zioen alkandora soinean zuela. Emakumeak, han ezin zirela bainatu. Oribarzarreko gizonak, berriz, beti bainatu direla errioan, beti, eta horixe bakarrik falta zaiela: Oribarzarreko hondartza itxita eta arranplatik ere ezin uretaratu.

Arranplan bi piragua zeuden, oinekin pedalkatuz mugitzen diren horietakoak, eskuak arrantzarako. Haien jabeetako bat Portu Zuzendaritzakoaren alde agertu zen; errioan bainatzea oso arriskutsua dela eta debekatuta dagoela, ontziek ez dutelako ikusten bainatzen ari denaren burua. Oribarzarrekoak, berriz, hango hondartzan bainatzea ez dela arriskutsua, han ez dela inoiz inor ito...



Haurrak, zubitik salto egiten. I. GAITON.

Eta nik, nire artean, "Oribarzarrekoek ere izango dute ba eskubidea errioan bainatzeko!". Hondartza itxita eta, bitartean, taberna asko gainezka, eta uretako motoak errioan ia lehorrekoak bezain azkar. Galtzaile, igeri-zaleak. Bide horretan segituz gero, laster, Orioko neska eta mutil koskor askok udan duten dibertsiorik handiena galarazia izango dute: moilatik salto egin eta uretan jolasean ibiltzea, belaunaldi guztietako oriotarrok egin duguna. Eta hori noiz, eta ia arrantza-ontzirik geratzen ez zaigun garaian!

Aurtengo uda badoa. Hurrengo urtekoa urruti ikusten dugu, baina nik nahi baino lehenago etorriko zaigu. Negurako badugu, bai, zer hausnartu. ■■■

JAIOPERRIAK

- **Enara Blanco Tolaretxipi.** Orion, ekainaren 16an.
- **Xuan Mateos Garin.** Orion, uztailaren 7an.
- **Unax Indo Peña.** Orion, uztailaren 10ean.

- **Yaye Lassy Sarr.** Orion, uztailaren 12an.
- **Alai Murua Zulaika.** Orion, uztailaren 13an.
- **Mattin Etxeberria Zumeta.** Orion, abuztuaren 10ean.
- **Mara Garnateo Arrieta.** Orion, abuztuaren 14an.
- **Aimar Arruti El Ouali.** Orion, abuztuaren 19an.
- **Mikel Alberdi Garcia.** Orion, abuztuaren 25ean.
- **Lur Domingo Esoain.** Orion, abuztuaren 25ean.

HILDAKOAK

- **Imanol Salaberria Perurena.** Orion, ekainaren 22an. 76 urte.
- **Joxe Mari Murua Iñarra.** Orion, ekainaren 27an. 88 urte.
- **Juanito Arruti Lertxundi.** Orion, ekainaren 28an. 98 urte.
- **Xanti Iglesias Nate.** Orion, Uztailaren 9an. 83 urte.
- **Cristino Salsamendi Salsamendi.** Orion, uztailaren 23an. 77 urte.
- **M^a Jesus Mugika Tolosa.** Orion, uztailaren 23an. 64 urte.
- **Nikolas Irastortza Aduritz.** Mugiron, uztailaren 24an. 68 urte.
- **Jose Manuel Gurrutxaga Aiestaran.** Aian, uztailaren 27an. 83 urte.
- **Beatriz Padilla Mendizabal.** Orion, abuztuaren 3an. 58 urte.
- **Rosalía Velez Carrasco.** Orion, abuztuaren 25ean. 95 urte.
- **Jose Antonio Caperochipi Irulegui.** Orion, irailaren 8an. 84 urte.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio



*Gauza berriak jaso ditugu
pasa gure erakusketatik!*

Beldurrik gabe galdetu.

*Neurri ezberdinetara
egokitzen gara.*



Estrata 3. Pab. Errasti (Aginaga Auzoa) 20170 USURBIL
Tel./FAX-a: 943-36 93 59 · Mugikorra: 676 35 56 35
mueblesaguinaga@mueblesaguinaga.com



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea sukaldea
bainugela ...
leihoak etxeko altzariak

eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu



Geltoki bidea, 1 · ZARAUTZ · ☎ 943-13 50 16 · www.biyona.net

Gure fauna: balea, mirotza, bixigua...



IÑAKI ITURAIN iturain@gmail.com

Munduaren historian animaliek garrantzi handia izan dute gizakion garabidean. Asko eman digute: elikatzeko, haragia eta esnea; janzteko, larrua; garraiatzeko modua; babesa eta konpainia... Orain 39.000 urte Altxerriko kobazuloan bizi ziren gizakiak ondo jabetuta zeuden horretaz. Hango paretetan ordutik margotuta dauden 120 irudietatik, 91 piztiak dira; bisontea da ugariena (53), baina badira bestelakoak ere: renoa, oreina, ahuntza, zaldia, uroa, azeria, erbia, hegazti bat eta arrainak.

XXI. mendean jaiotako oriotarren herriko bizimoduan, animaliek ez daukate aurreko belaunaldietakoen bizitzan izan zuten presentzia. Hala ere, oraindik edozeinek ikus ditzake palotetan olidentarren idiak uztarrian lotuta karga eramaten, demarako prestatzen; orain gutxi arte, festetan, haurrak Gorritiren animaliekin (bigantxak, oilarrak, ahariak...) jostatzen; eta, tarteka, hondartzan zaldi-lasterketaren bat. Orain, gainera, animalientzako Katu Horia klinika dago Bikamiotan; eta txakur-gune bat futbol zelaiaren ondoan, araudi eta guzti.

XX. mendean animaliak askoz gertuago zeuden herritarrengandik. Bai arrantzaleen giroan: udaberri aldean, baporeak moilan arraina deskargatzen; eskabetxerietan, atuna eta antxoa latetan jartzen; herriak kresal usain nabarmena zuen. Bai baserritarren giroan ere: asto gainean jaisten zituzten barazki eta ortuariak plazako azokara; han asto-tokia zuten aberea lotzeko; oinak perratzeraz jaisten zituzten behiak, idiak, zaldiak eta astoak, Rafael *Herrero* errementariaren tailerrera (oraingo Kutixi kafetegia ondoan), eta hiltzegira, haragitarako hiltzera. Plastada eder askoek erakusten zuten herriko kaleetan abereen ibilbidea.

Taxi-burro hondartzara

1970eko urteetan, Portu baserrikoen gurdi bat ibili zen uda partean, zaldi handi batek tiratuta, pezeta baten truke jendea herritik hondartzaraino eramane eta ekartzen. Turismo-postaletan agertzen zen

XX.MENDEAN ANIMALIAK ASKOZ GERTUAGO ZITUZTEN ARRANTZA ETA BASERRI GIROAN

zalgurdia, Madrileko udatiar batek *taxi-burro* deitzen zion. Garai hartan ohikoa zen artalde oso bat ikustea herria zeharkatzen. Oilar-borroka eta ahari-topaketa izaten zen festetan frontoian; ez zen noski Donostiako zezen-plazako ikuskizunen mailara iristen, han zezena eta lehoia ere ibili baitziren borrokan elkarren kontra.

Sokamuturra ere izaten zen San Pedrotan, goizean. Axentxio *Txanka* zenaren bertsoek kontatzen dute behin zezenak erriora salto egin eta estazioraino joan zela ihesi, seguru asko han trena hartuta herritik ihes egiteko: “Kofradiko arranzplan sartu zan putzua, igalariya ere ez oso mantsua, madritarrak bezela artu zun bañua”.

Uztailean Gure Zirkua izan dugu futbol-zelaiaren ondoko belardian. Ikuskizun bikaina eskaini digu; baina han ez zen animaliarik. Orain, arrazoi etikoengatik, ez dira ikusten zirku gehienetan. Garai batean, elefanteak, lehoiak, tximuak... ikusi zituzten orain aitona-amona izateko adinean daudenek.

Jorge Oteizaren biografian kontatzen da txikia zela aitonaaren eskutik pasean joaten zela hondartzara, eta nola abereen hiltzegiaren ondotik pasatzen ziren, Xixarrio



Duela milaka urte Altxerriko koban bizi zen gure arbasoa, paretan margotutako oreinari begira. AIAKO UDALA

jatetxearen aurrean; eta han, hil(ko) zituzten behien eta txerrien herio-marruekin eta odolaren usainarekin batera, nola ikusten zituzten herriko gaztetxoak katuak buztanetik helduta arroken kontra lehertzen. Garai hartan bazen jendea zakua erriora botatzen zuena, haren barrutik katakume jaio-berrien miau-miaua entzuten zela. Eta baziren festetako asto-lasterketak makilarekin abereari sekulako jipoia emateko baliatzen zituztenak ere.

Urrea, zilarra eta brontzea

Orion sailkapen bat egingo bagenu, animaliek herriaren historian izandako garrantziaren



Animalien Orioko Olinpiadan, baleak urrezko domina.

arabera, eta olinpiadetan bezala urrea, zilarra eta brontzea banatu, seguru asko ez legoke eztabaida handirik urrea baleari emateko, ekonomian eta sinbologian izandako pisuagatik. Orioko arrantzaleek

1901ean itsasadarrean harrapatutako balearen bertsoak dira euskaldun askorentzat ezagunenak. Haiek eman diote Kantauriko azken balea-harrapaketari geroztik hartu duen ospe eta



Arrantzaleak moilan arraina deskargatzen.



Astoa, lasai, hondartzarako bidean. KONTXITA CARMONA

oihartzuna. Baina balea askoz lehenagotik izan zen inportantea oriotar askoren bizitzan: Haren atzetik joaten ziren Ameriketaraino XVII. eta XVIII. mendeetan; arrantzale haientzat balea bat harrapatzea sekulako aberastasuna zelako. Balea Goiko Kaleko antzinako etxe batzuen armarrarian ageri da; herriko elkarte batek Balea izena du; haren ondoko plazatxoaren balearen irudi koloretsu ederrek janzten dute; eta 2001etik, bost urtean behin, Balearen Eguna ospatzen dugu herrian, festa handia.

Orioko animalien saillapeneko bigarren postuko zilarra banatzeko, egon liteke desadostasuna mirotzari edo bixiguari eman. Mirotza garrantzizkoa izan da eta da, herriaren ikur moduan, arraun giroan. *Agilutxoak* (mirotzak), horrela ezagutu izan dituzte kanpotar askok arraunlari oriotarrak. Kazetari kanpotar batek asmatu zuen izendapena, traineru horia olatuen gainean surfeatzen ikusita: “Esos de amarillo no son remeros, son aguiluchos, no reman, vuelan

sobre las olas”. Benitok horretan oinarrituta sortu zuen *Mirotzak* kantua: herriko arraunlarietako eskainitako ereserkia. 1965ean Orioko Arraun Olinpikoko elkarteak sortu zenean mirotzaren hego bat jarri zion Juan Jose Loidik elkartearen irudiari.

Bixigua, berriz, oso lotuta egon da Orioren identitate eta izenarekin. *Bixigua, Orio estilora* topatu dezakezu jatetxeetako kartan, penintsulako hiri askotan. Bixiguak kokatu du Orio jatetxeen mapan; eman dio lekua eta izena, gastronomiaren munduan. Azken urteotan Bixiguaren Festa ere ospatu ohi da herriko plazan, udaran.

Hirugarren posturako hasiko liriteke zalantzak eta eztabaidak, brontzea zein animaliarri eman. Herritar askok (arrantzale eta eskabetxeroek), ekonomian garrantzia handia izan duten arrainei emango liekete: antxoak, hegaluzea, angula, txitxarroa, berdela, sardina, lupia, txipiroia... Arrantzale zaharrek itsasoko txakurra izango lukete gogoan,

garai batean arrantzan laguntzeko baporean eraman ohi zutena, *txakurrarena* hitzak gogorarazten diguna. Ehiztariak, ehizakiak: usoa, basurdea, oilagorra, eperra, galeperra... San Martin festetan baserriz baserri oilasko biltzen ibiltzen direnek horixe aipatuko lukete. Baina, jakina, beste batzuek, etxean daukaten maskota: txakurra, katua, arraintxoak, loroak, dortoka... Oria itsasadarreko paisaia kaioa izango da irudirik ohikoena. Azken urteotan, Oribarzar aldean astoak berreskuratu egin du aspaldi galdua zuen tokia, baita Txanka



Hegaluzetan. RAMON MARI OLIDEN



Paxita Peña, Iñaki eta Joxe Mari semeak eta langileak, bixigua erretzen, Joxe Mari erretegiari, 1970eko hamarraldian.

aldean ere; orain, alaitu egiten diete bidea oinezko ibiltariei.

Animalien goitizenak

Animaliak jendea izendatzeko ere asko erabili dira Orion, euskarazko goitizenetan: *akaña, arratoya, azkonarra, ixurdia, leoya, moxolo, ollua, txepetxa, txingurri, txirrita, txolarra, txoriya, xagua, xapua, xoxua, zanga, zekorra...*

Fabian Loidi Igeldoko apaiz-poeta oriotarrak olerki bat eskaini zion Kukuarri mendiari izena ematen dion kukuari, neguaren bukaera eta udaberriaren hasiera iragartzen digun txoritxoari; abesti egokia, herriko lekuri altuen eta politenetakoan kantatzeko: kukuaren harrian. Errioko barran punpaka zebiltzan izurdeak ere aipatzen ditu beste olerki batean.

Benitok, txikitan, hartza ikusia du Goiko Kaleko Pilliku plazan,

atzeko bi hanken gainean tente jarrita, bigarren mundu gerraren ondoren Hungriatik etorritako ijito nomada edo *hungrianoen* kale ikuskizunetan.

Jabier Pikabeak *Errioko jarduerak* bere liburuan aipatzen du 1941ean 11 arroako (140 kilo) mazopa agertu zela erriean, Aginagako uretan, eskopetarekin tiroz akabatu zutena; eta 1987an, mortsu bat, galduta, DYAkoein berriro itsasoratzen lagundu ziotena. Biak ere oso arrotzak dira ingurumari honetan.

Jon eta Aitor Sarasua anaiek, animalia espezie desberdinak gai hartuta (arranoa, hartza, kalparra, hontza...), disko ederra plazaratu zuten: *Fauna txiki bat bertso berritan*, ironia handiz piztien ezaugarriak gizakien jokaerekin parekatuz, umorez kritika sozial zorrotza

eginez: "*Sarasua da gure izen printzipala, nork daki bigarrena Maritxalar dala?, etzaigu egokitu suerte makala, apellidu bereko pabo erreala*". Ibai Esoainek angularen harrapaketari jarritako *Sigi-saga* bertso sorta ederrak irabazi zuen Zarauzko Basarri Bertso Paper Lehiaketa 2018an.

Azken urteotan, gizakiotan bezalaxe animalietan ere, beste kontinenteetakoak etorri zaizkigu gure artera. Urdanetan eta Orioko Benta baserriaren aurrean ezohikoak ikus ditzakegu: ostrukak, bisonteak (Altxerriko kobazuloan bezala)... Kanpotik etorritakoen artean bada bat, aspaldi honetan gure artean ibili den sasi animalia txiki-txiki-txiki bat, izena aipatzea ere merezi ez duen birusa. Laster ospakizun handia egingo dugu mundu guztian, bakean uzten gaituenean. ■



Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

KORTABERRI
arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47



Lizaso Dekorazioa

Eusko Gudari, 48 · ORIO · 943-83 07 84
itzilizaso@gmail.com

libe
dietetika
elikadura aholkularitza

943-53 64 94
697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com
www.libegarmendia.com

Eusko gudariak, 35 · ORIO
(sarrera Arrantzale kaleetik)




MARIJO

ILEAPAINDEGIA
Eusko Gudari, 8 behea · ORIO
943-13 47 29



Karta
Pintxo tradizionalak
Okindegia

Palota Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943-53 61 27



MENDIZABAL
AROTZEGIA

Neurriko armairuak eta egurlanak

Altzerri bidea, Beti-Alai etxea · AIA-ORIO
943-83 11 75 · 645 70 84 91
mendi@arotzgi.net

OINARRI PODOLOGIA ZENTROA



Arrantzale kalea, 63 behea
ORIO
943-57 53 61
oinarri@podologia-oinarri.com
www.podologia-oinarri.com

PAKO IMAZ



PERTSIANAK
aluminioa
motorrak
automatismoak
konponketak

600 70 52 27 · 943-13 29 01
pakoimaz@hotmail.com · ORIO



narau
school & translations

2021-22
KURTSO BERRIA MARTXAN
www.narau-school.com

Eusko Gudari 29 - ORIO
943-83 11 16
648 97 64 70
info@narau-school.com




Garraio frigorifikoa
Nazionala eta Nazioartekoa




genera
garraioak

Ubegun industriagunea, 4
AIA-ORIO
943-89 4024 · FAX-a: 943-13 01 44

Nola pasatu duzu uda? Eta zer itxura du udazkenak?




JORGE ADUNA

Uste dut gaur egun, kalera ateratzean, ez daukadala pandemia aurretik izan nezakeen askatasun bera. Eta hala sentitu dut uda honetan ere. Orain birritan pentsatzen dugu atera edo planak egin aurretik; esaterako, tokia aurrez pentsatzea eta erreserbatzea eskatzen du zenbait plan egiteak. Gauetan zertxobait motz geratzen da tabernak ixterakoan, 01:00etan, etxera joan behar izatea; eta talde handian egotean ere beti dago nolabaiteko beldur bat, maskararik gabe egon eta kasuren bat baieztatuz gero kontaktu zuzena izateko arriskuagatik edo, besterik gabe, helduek esango dutenagatik. Gaur egungo planak, beraz, derrigorrez dira desberdinak lehengoekin alderatuta. Egia da lehen normalizat jotzen genituen zenbait gauzak inpaktatu egin nautela pandemian zehar, adibidez, jende pilaketek edo kontaktuko kiroletan aritzeak. Baina orain, pixkanaka, normalizat hartzen ditut berriz ere.



MARIA ANTONIA RUIZ DE AGIRRE

Aurrekoa baino pixka bat hobea izan da aurtengo uda, baina neurri murriztaile asko izan ditugu oraingoan ere. Beldurra nabarmena da oraindik. Datorren ikasturteari dagokionez, espero dut, pixkanaka, lehen martxan izaten ziren aisialdirako jarduerak berriz ere martxan jartzea. Jarduera askotan hartu ohi dut parte, eta poza ematen dit pentsatzeak, agian, berriz egin ahalgo ditugula lehen egiten genituen gauza guztiak. Apurka egoerak hobera egingo duela uste dut; neurriak betetzen ari gara. Uneren batean edo beste, ahaztu egiten zaigu neurriren bat; adibidez, maskara erabiltzeaz, baina mentalizatuta gaude eta segituan oroitzen gara berriz musukoa janzteaz. Zertxobait ohitu gara dagoeneko. Nire kasuan, gainera, azken hilabeteetan ez dut katarrorik harrapatu, eta maskaren erabilerari esker izan dela uste dut. Lehen sarri harrapatzen nituen.



XABIER ORZAIZ

Lehengo urtekoaren nahiko antzekoa izan da aurtengo uda; nahiko normala izan da dena, baina hainbat bereizgarriekin agian. Esaterako, lehen baino opor gutxiago izan dira, noski. Nire inguruan iaz bezalaxe bete ditugu indarrean zeuden neurri guztiak, berdin-berdin; udan pare bat astez izan gara kanpoan, baina besterik ez. Uste dut, ordea, jendea lasaitu edo erlaxatu egin dela orokorrean aurtengo udan. Ikasturte berria hasi da dagoeneko, eta haurrak itzuli dira ikastetxeetara. Nire ustez, iaz politika egokiak ezarri zituzten eskoletan. Gure hurrek, esaterako, ondo igaro zuten ikasturte osoa; ez zuten konfinatu beharrik izan. Espero dut aurtun ere hala izatea, eta iaz bezain ondo edo hobeto joatea guztia eskoletan. Gazteenak ere txertatuta egongo dira ikasturte honetan, gainera. ■■■

"Ekintza soziala da kirola, ikusleak beharrezkoak ditu"

JAKES GOIKOETXEA KAZETARIA

Historiako Olinpiar Joko berezienetakoen berri eman du Tokiotik (Japonia) bertatik 'Berria' egunkariko kazetariak (Orio, 1973) Ainara Arratibel lankidearekin batera. Hiru astez, 24 orduz Jokoak izan ditu buruan, eta esperientzia horren gazi-gozez hausnartzeko tartea ere eduki du.

Testua: **Onintza Lete Arrieta**. Argazkiak: **Iñigo Gaiton**.

Ez zara 'Berria'-ko Kirol sailekoa, baina bai kirolzalea eta eskarmentu handiko berriemailea. Olinpiar Jokoen berri Tokiotik bertatik ematea tokatu zaizu.

2019an eskaini zidaten aukera, eta baiezkoa eman nuen. Olinpiar Jokoetara joan nahi nuen, baina, batez ere, Japoniara bidaiatzeak motibatzen ninduen. Beti erakarri izan nau hango kulturak, tradizioaren eta modernitatearen arteko kontraste horrek, ondarea nola zaintzen duten... Jokoak baziren aitzakia, batetik, Japoniara joateko eta, bestetik, Jokoak barrutik bizitzeko, beti ere, jakinda hara joango nintzela ez turismoa egitera, baizik eta lanera, eta herrialdea pixka bat ezagutzera. Baina, pandemiagatik, kazetariok burbuila batean sartuta egon gara, eta ez dugu herrialdea ezagutu. Gordin esanda: Japonian ibili gara, baina ia-ia Japonian egon izan ez bagina bezala izan da.

Hori gogorra izango zen, ezta?

Jokoak pandemia garaian egitea erabaki zen momentutik, bagenekien gauzak ez zirela normalak izango. Prestaketa eta burokrazia lan horretan guztian ere jakinarazi ziguten oso kate

motzean lotuta egongo ginela. Aurreneko hamalau egunetan gure mugimenduak erabat mugatuta egon ziren.

Zer neurri ezarri zizkizueten?

Hasteko, iritsi ginenean hiru eguneko koarentena egin behar izan genuen, eta egunero listu testak; gero, lau egunetik behin egiten jarraitu genuen. Hiru egun horien ondoren, hamalau egunez lan egiteko bakarrik atera gintezkeen hoteletik, horretarako jarritako autobusetan, eta gainerakoan, otorduetarako bakarrik, gure hotelak ez zeukalako jatetxerik. Baina soilik hamabost minutu izaten genituen, hoteletik atera, janaria eskatu, eta berriro janariarekin logelara itzultzeko. Horrez gain, aplikazio batean egunero jarri behar izaten genuen zer temperatura geneukan, sukarrik eduki genuen ala ez, sukarra zuen norbaitekin harremanik eduki genuen ala ez... Mugak oso estu jarri zituzten, eta gu ere ez ginen saiatu horiek hausten. Ez gogorik ez geneukalako, baizik eta lanera joan ginelako. Gurea komunikabide txikia izanik, bi kazetari joan gara, badakigu zenbat kostatzen den hemendik hara bidaiatzea, akreditazioak lortzea... Askotan



esaten da *Berria* babestu behar dela, Berrialaguna izatearen garrantzia... Laguntza horrengatik argitaratzen da egunkaria, baina laguntza hori honelako gauzetan ere islatzen da. Euskal Herrian ez dut uste beste inork bi kazetari bidali dituenik Japoniara.

Zuen lana egitea bereziki zaila izan den momenturik izan al duzue?

Antolatzaileek oso zorrotz zaindu dituzte telebisten irudi eskubideak. Ni, adibidez, egun batean nire inozentzia osoarekin ari nintzen sakeleko telefonoarekin bideo bat grabatzen estadio olinpikoan; ez kirolari bat, baizik estadioa bera, azaltzeko nola zen barrutik, etab. Arduradun bat etorri eta dena ezabarazi zidan; bideo hura eta aurretik eginak nituenak. Zakarrontzitik ere ezabatzen nituela ziurtatu zuen. Akreditazioari argazkia atera, eta esan zidan berriz araua hausten banuen ikusiko zutela zer egin akreditazioarekin. Ulertzen dut telebista batek irudi eskubideak ordaintzen baditu beste telebista batek ez ematea 100 metroko korrikako finala, baina ez ut ulertzen zer kalte egiten duen Iñigo Peñari [piraguista zumaiarra] edo beste edozein kirolariri bost minutuko bideoa grabatzeak lehiaketa amaitzen dutenean. Ezkutuan ibili behar izan dugu.

Tokion zinema idatzi zenuen zure ustez Olinpiar Joko hauetako arazo nagusiak komunikazioa eta beroa izan direla.

Beroa ikaragarria izan da, egunero 30 gradutik gora genituen. Guri gure burbuilan ez zigen eragin, hotelean eta autobusean aire girotua genuelako, prentsa gunean ere bai, zeina oso ondo antolatua zegoen, bide batez esateko. Baina hoteletik kalera irteten ginenean bero izugarria geneukan, orain egun gutxi Orion eduki duguna bezalakoa. Kirolariek, berriz, bost urte pasa dituzte lehiaketa prestatzen, eta beren onena eman behar dute bero horrekin, baldintza horietan? Japonian 1964an ere jokatu ziren Jokoak, eta atzeratu egin zituzten abuztuko beroagatik. Oraingoan ez dituzte atzeratu; egin duten bakarra izan da erresistentziako kirol batzuk Sapporora eraman, han bero gutxiago egiten duelakoan, baina han ere 30 gradu inguru egin ditu. Niretzat ez dira baldintza egokienak izan Olinpiar Joko batzuk egiteko.

Komunikazioarekin ere arazoak izan dituzue.

Hori izan da arazo nagusia gure lanerako behintzat. Nik ez daukat kristoren erraztasuna ingelesez egiteko, baina oinarritzko maila badut,

eta han askotan boluntarioekin ezin izan gara komunikatu, ez zekitelako ingelesez. Japoniari buruzko irudi batekin zoaz, oso eraginkorrak direla etab., eta gero han momentu batzuetan irudi hori puskatu egiten da. Esan ziguten beste urteetan nazioarteko deialdia egiten dela boluntarioak hartzeko, eta horiei ingelesa eskatzen zaiela, baina aurrean pandemiagatik ezin izan da, eta herrialdekoekin bakarrik moldatu behar izan dute.

"Jokoak urrun, baina kirolariak gertu" sentitu dituzuela ere zeuk esandakoa da.

Dominak jokatzeko ari ziren, eta ematen zuen lagunarteko lehiak zirela, ikuslerik gabe ari zirelako. Sentsazioa hotza zen, batzuetan tristea ere bai; estadio olinpikoan, batez ere, 60.000 lagun sartzen diren toki batean milaka gutxi batzuk zeudelako, eta horiek ere lanean, ez animatzeko eta txalo egiteko. Bestalde, ordea, han egoteak aukera eman digu kirolariekin hitz egiteko, ez kirolari mediatikoekin, baizik beste era bateko kirolariek. Eta esperientzia honetan gauza aberasgarrienetarikoa horixe izan da. Oso natural, oso zintzo egon dira, adierazpen prefabrikaturik gabe, oso gauza pertsonalak kontatzen. Alde horretatik, berotasun eta gertutasun hori sentitu ditut. Futbolaren eraginagatik izango da agian, baina batzuetan kirolariei kendu egiten diegu pertsona izaera. Kirolaria bakarrik ikusten dugu, eta ahaztu egiten zaigu kirolari izaera horren barruan pertsona bat dagoela, eta Olinpiar Joko hauetan, kirol ez mediatikoetako kirolariek zaudenean, batez ere gailentzen dena pertsona da.

Oroitzapen polit edo hunkigarriak ekarri al duzu Tokiotik?

Bai. Asier Martinez nafar gaztea 100 metro hesietan lehiatu da. Tokiora iristean, finalera sailkatzea zuen helburu, baina helburu nahiko urruna zen. Bada, probaz proba denborak hobetuz joan zen, sekulako progresioa egin zuen, eta finalerdiak jokatu zituen unearekin gogoratzen naiz. Oker ez banago, hiru finalerdi ziren, eta bakoitzetik bi onenak sailkatzen ziren finalera, eta baita gainerako bi denbora onenak ere. Berak bere finalerdian hirugarren egin zuen, baina oso-oso denbora onarekin. Beste atletek alde egin zuten, eta bera eskaileretan gelditu zen hurrengo finalerdiak ikusten, jakiteko finalera sailkatzen zen ala ez. Momentu horretan berarengana joan nintzen, galdetzeraz ea zer moduz joan zitzaien etab. Berarentzat momentu



" NIRE IRITZI PERTSONALA DA OLINPIAR JOKOAK EZ ZIRELA EGIN BEHAR"

" INPORTANTEAK IRUDITZEN ZAIZKIT SIMONE BILES-EN ETA MAIALEN CHOURRAUTEN DISKURTSOAK"

" OROITZAPEN BEREZIENA ASIER MARTINEZ NAFAR GAZTEAREKIN BIZITAKOA DUT"

oso inportantea zen, eta gertutasun eta naturaltasun ikaragarriarekin egon zitzaidan hizketan. Gainerakoan, adibidez, Caeleb Dressel munduko marka bat hausten ikusi nuen igerilekuan, eta Katie Ledecky igerilaria ere ikusi dut... Baina, agian, ez dizute horrenbeste transmititzen.

Esan duzu arraroa egiten dela estadio huts batean lehiatzea. Zentzurik badute txapelketek edo Olinpiar Jokoek zuzeneko ikuslerik gabe?

Nire iritzi pertsonala da Olinpiar Jokoak ez zirela egin behar: jokoak egitea larrialdi egoera ezarrita dagoen toki batean, herritarrei mugak jarrita daudenean, horiei bizkar emanda, horrek ez dauka inolako zentzurik alderdi etiko eta epidemiologiko batetik, ezta ikuslerik gabe egiteak ere. Kirola zerbait bada, soziala da, ikusleak behar ditu.

Kirolari batzuek aprobetxatu dituzte Jokoak erreibindikazio batzuk egiteko.

Hasieran Nazioarteko Olinpiar Batzordeak esan zuen ez zituela onartuko protestak, politika ez dela sartu behar... Baina nik uste erakunde hori badela politikoa; bere erabakiekin politikan eragiten du. Joko hauetan egon dira mezu batzuk. Horren harira, Simone Biles-ena inportantea iruditu zait. Maila horretako nazioarteko izar batek bat-batean esatea ez dagoela lehiatzeko moduan, arazoak dituela eta kirolariak jasaten duten presioari buruz hitz egiten hastea, hori zabaltzea eta munduari jakinaraztea, hori inportantea izan da. Horrekin lotuta, aukera izan nuen elkarrizketa oso interesgarria egiteko Josean Arruzari. Basque Team-ekin lan egin izan du, kirol psikologian aditua da, eta berak esaten du kirolariak bi presio mota dituztela: bat endogenoa, kirolariak berak bere buruari jartzen diona, eta hori berez positiboa dela; eta bestea, exogenoa, kanpotik jasotzen duena –komunikabideena, ingurukoena...–eta hori dela baztertu beharrekoa. Eta ildo horretatik, Olinpiar Joko hauetan inportantea iruditzen zait Maialen Chourraten diskurtsoa ere.

Zergatik?

Maialen Chourrautek dominak lortuak zituen lehendik ere, Tokion zilarra lortu du, eta denok pentsa genezake oso gustura dagoela egindakoarekin, baina berak esaten zuen orain dela gutxira arte asegabetasun batean bizi zela, behar zuela zerbait gehiago... Eta Tokio baino pixka bat lehenago jabetu zela lortutakoaz, eta zer bide egin zuen hau guztia lortzeko. Hausnarketa hori inportantea dela uste dut. ■■■



Uda ederra, pandemia garaian

Udara badoa, eta beste garai baten hasiera dator. Nik, nire udara bizitzeaz gain, beste pertsona askorena nola joan den ikusteko aukera izan dut, talaia batetik; hain zuzen ere, mugimendu asko duen taberna bateko barraren atzetik. Lanean ordu asko pasatu ditut, eta horrek, nire denbora libre gutxi hori zukutu eta hobeto aprobetxatzera eraman nau. Horrez gain, jende askorekin harremana egiteko aukera izan dut, eta haiekin komunikatzeko aukera, gauza asko ikasiz.

Gainontzeko udarekin alderatuta, garbi dago aurtengoa desberdina dela. Pandemia egoeran jarraitzen dugu, murrizketekin, eta bi urteotan bizitako egoerak guztioi eragin digu, modu

batera edo bestera. Pasatutako urte gogorraren ondoren, egoera honi oso alde positiboa topatu diot, eta horrekin, bizitzako beste alderdi batzuk gehiago baloratzen ikasi dut.


Pandemia garaian, dena itxita egon denean, planak egiteko ohitura eta joera desberdinak sortu ziren, batez ere gazteen artean: mendira joatea, inguruko herriak bisitatzea edota txoko desberdinak esploratzea, eta ohitura horiek mantendu egin

**PANDEMIA GARAIAN,
JENDEAREKIN
EGOTEAK EMATEN DIGU
AURRERA EGITEKO
INDARRA GAZTEOI**

dira udaran ere. Bestalde, lanean jende asko ezagutu dut, eta gauza asko ikusi ere bai.

Hasteko, turismoa dezente mugitu dela eta, urrutira joan gabe, Gipuzkoako herrietako gazte asko etorri da aurten Oriora. Azken boladan jasan dugun errepresioaren ondoren, bizitzeko gogo bizia dugula nabarmendu da, gazteengan batez ere. Gazteen sozializatzeko beharra, jende berria ezagutu, parranda egin eta ondo pasatzeko premia izugarriak dira, eta legeek gauza asko egiten utzi ez arren, irtenbide irudimentsuak inprobisatu ditugu gure artean elkartzeko. Azken batean, jendearekin uneak eta bizipenak partekatzea da momentu honetan aurrera

HAUXE BAI JENEROA!



ateratzeko indar handia ematen diguna, nire ustez.

Dagoenari eta esku artean daukagunari etekina ateratzen eta ahal den ondoen aprobetxatzen ikasi behar dugu,

orain eta hemen bizitzen, egoera bakoitzera egokituz. Nik, nire aldetik, udara hau inoiz ez bezala gozatu dut, egunerokoan ditugun plazer txikiez disfrutatuz. ■■■



OLASAGASTI



NIRE HONETAN



**MIREIA GALARZA
BASTIDA**

Nahasbidea

Klima aldaketak sortzen dit ezinegona, eta nire buruari errepikatzen diot ez erosteko merkataritza gune guztietan dauden arropa kate erraldoietan. Klima aldaketak sortzen dit pena, eta nire buruari errepikatzen diot kontsumitzen dudana guztia edukiontzi egokira bota behar dudala, inoiz inongo akatsik gabe. Klima aldaketak sortzen dit kezka, eta nire buruari errepikatzen diot autoa erabiltzea ekiditeko, garraio publikoa lehenetsiz. Horrela beti. Buruari bueltaka, zintzo jokatu nahian, nire subkontzienteak birrindu ez nazan.

Baina beti ezin dut perfektua izan, edo ez behintzat politikoki egokia. Ze bai, hartzen dut autoa oinez joateko nagidura sartzen zaidanetan, eta erosten ditut bizirauteko behar ez ditudan bost euroko kamisetak. Eta ados, ez naiz esne tetabriketan plastikoa eta papera bereizteko kristorenak eta bi egiten dituen horietakoa.

Egia da, beste mundu bat posible da, eta ni ere saiatuko naiz hori horrela izan dadin, eta irakatsiko diet nire ondorengoei ingurua zaintzen. Baina, arren, utz diezaigun aldamenekoari inkoherentziaz betetako izaki koherentea izaten saiatzen, behingoz, eta orduan topatuko dugu barne lasaitasuna. ■■■

Joan da aurtengo uda ere!

ERREDAKZIOA

ARGAZKIAK: KARKARA ETA UTZITAKOAK

Kontzertuak, zirkua, dantza eta antzerkia, kirol ekitaldiak... Izurriak festak betiko moduan egitea galarazi du aurten ere, baina udan izan da zer gozatua Orion. Jendea ibili da astez aste antolatu diren ekimenetan, eta azken hilabeteetan mugimendurik ez da falta izan herriko txokoetan. Horrez gain, udaren zati handi batean eguraldi goibela nagusi izan arren, zeruak urdinu ziren abuztuaren erdialdetik aurrera, eta bizi-bizi izan dira hondartza, moila eta arranpla inguruak. Pandemiaren eragina oraindik ere nabarmena izanagatik, oriotarrek eta bisitariek udari zaporea hartzeko aukera izan dutela esan daiteke, argazkietan ikus daitekeen modura. ■■■







Kontxa: aurrean bai, banderarik ez

Ohorezko Txandetan ibili dira Orioko traineruak Kontxako Estropadetan, baina banderarik ez da lortu aurten. Neskak faborito izan dira azken unera arte, baina zoritxarrez, Donostian geratu da trapua. Uda "ona" izan dela azaldu dute arraun elkarteko zenbait kidek, balorazioa egiteko osatu den erreportajea.

Testua: **Iñigo Gaiton**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea-Iñigo Gaiton-Onintza Lete Arrieta**.



Kontxako Banderarik ez da irabazi aurtan. Hori da laburpenik zehatzena oriotarrek Donostian lortutako emaitzak azaltzeko, baina inondik ere, labur geratzea litzateke; bai behintzat, etxeko traineruek denboraldi guztian zehar, Kontxan barne, lortu eta egin dutena ondo azaldu nahi bada.

Donostiako Estropadak lagin egokia dira oriotarrentzat uda nola joan den azaltzeko: nesken trainerua banderak irabazteko faboritoetako bat izan da estropada guztietan, Arraun Lagunakekin batera. Puntu kopuru berarekin bukatu dute liga bi taldeek, baina bandera gehiago lortuta, donostiarrentzat izan da sailkapen orokorreko lehen postua. Lehia estu-estua izan dute bi txalupek, eta zaleen emozioa borborka jartzea lortu dute, estropada ikaragarriak eginez. Kontxan ere halaxe gertatu zen: segundo eta erdiren bueltako aldearekin abiatu zuten bigarren jardunaldia, eta azken unera arte ez zen ezer erabaki. Azkenean, Arraun Lagunakentzat izan zen bandera.

Mutilei dagokienez, helburua ligako Ohorezko Txandan egotea zela azaldu zuten uda hasi aurretik, eta hori beteta geratu da, baita Kontxan ere. Eusko Label liga bukatzeko azken asteburuaren faltan, banderarik ez dute astindu, baina aurrean ibili dira, eta estropadaren batean gailentzeko aukerak ere izan dituzte.

Orio Arraunketa Elkarteko zenbait kiderekin egon da KARKARA, traineru denboraldiaren argi-ilunak aletu eta aurrera begirako proiektioaz hitz egiteko.



"Kontxan gehiago nahi genuen, baina lan itzela egin dugu"

Santi Zabaleta nesken txalupako entrenatzaileari zapore "gazi-goza" laga dio Kontxak. Izan ere, bigarren postua ez da izan urte osoan amestutako saria. Dena den, Zabaletak balio handia eman dio Donostian emandako errendimenduari: "Lan itzela egin dugu bi igandeetan, eta horri eutsiko diogu. Txalupa oso ondo ibili da uretan. Bi egunetako denborei erreparatzea besterik ez dago horretaz jabetzeko".

Oriok lehen kaletik egin zuen arraunean bigarren igandean, Arraun Lagunaken ondoan. Donostiarrek haien kaleari eusteko apustua egin zuten, Oriori norabidea aldatzeko aukerak itxiz. Ondo atera zitzairen. "Uretara ateratzerako, bagenekien hori gerta zitekeela. Talde bakoitzak eskura dituen baliabideak erabili behar izaten ditu estropadak irabazteko, eta donostiarrek asmatu egin zuten. *Chapeau*", azaldu du kiroltasunez.

Nadeth Agirreri ahotsa mehetzen zaio Kontxaren inguruan galdeginda. Emozioak bizi-bizi ditu oraindik ere patroiak. "Nahi eta ezinarekin egin genuen bigarren luzea. Istriborrera jo nahi genuen, bigarren kaleari eutsi eta korronteari izkin egiteko. Ez ziguten laga. Epailak bi aldiz atera zigun banderatxo, eta hor joan ziren aukera guztiak".

Estropadaren zatiren batean aurretik joan ziren oriotarrak, baina egoera edozein momentutan iraul zitekeela pentsatzen zuen patroiak. "Bi edo hiru segundo aurretik ginela esan zidan Santik unerren batean, baina banekien bandera ez zegoela erabakita oraindik, eta azkenean, hala izan zen".

"Heldutasun handiko" talde gaztea

Bi denboralditan nagusi ibili eta gero, iaz bajak izan ziren nesken taldean, eta gazteekin eraberrituta hasi zituzten azaroko entrenamenduak. Agirreren hitzetan, ez ziren faboritoen artean sartzen aurtengo udarako. "Izen handiko arraunlariekin indartu ziren talde batzuk udazkenean. Guk, hasiera batean, profil baxuagoa genuen". Hala eta guztiz ere, denboraldiko bi traineru onenetako bat izatea lortu dute. "Meritu ikaragarria du egin dugunak. Esperientzia



gutxiko jendea izan da barruan, eta maila oso altua eman dugu ligan eta Kontxan".

Agirrek hamabigarren denboraldia egin du patroï modura. Urteek eman dioten talaïatik, "ilusio ikaragarriarekin" ikusi ditu taldekide gazteak: "Aurreko bi urteetan bandera asko irabazi dituen talde batean sartu dira, eta haien maila eman dute. Onena erakusten saiatu dira une oro, entrenamenduetan eta estropadetan gogo handiarekin arraun eginez. Harrobikoak izanik, arraun elkartearetik eta herriarekiko sentimendu handia dutela ikusten zaie, eta gogotsu daude borroka egiteko, Orioren izenak goran jarrai dezan". Guztira, hiru debutari izan dituzte nesken taldean.

Entrenatzailearen hitzetan, taldeak "heldutasun handia" erakutsi du, emaitza on zein txarrekin. "Zorionez, taldekide guztiek izan dute haien estropada, eta guztiek gozatu dute kirolaz. Goi mailan hori ahaztu egiten da sarri, eta garrantzia eman behar zaio disfrutatzeari ere".

Kontxako bigarren postuaren "pena" oraindik barruan izan arren, Arraun Lagunakekin udan izandako lehia "oso ona" dela uste dute biek, emakumezkoen arraunak koska bat gora egiteko balio izan duelako. "Hori da helburua. Aurten bi talde ibili gara nagusiki banderen lehian, eta hurrengo urtean lau bagara, hobeto", esan du Zabaletak.

Agirreraren iritziz, garaipenak gero eta zailagoak izango dira aurrerantzean: "Goran mantentzeak gero eta lan gehiago eskatuko du, aurkariak ere gora datozelako. Orain talde gazte eta sendoa dugu Orion, eta esango nuke, bide luzea duela aurretik. Dena den, denborak esango du kuadrillaren eboluzioa nolakoa den".

Mutilak ere aurrean

Kontxako bosgarren postuarekin "konforme" egon beharko dutela azaldu du Jon Salsamendik. Entrenatzailearen hitzetan, estropada "oso ona" egin zuten lehen igandean, baina bigarrenetan ez ziren nahi bezala ibili. "Xaloeziak izan ginen, inozente samarrak. Inolako konplexurik gabe askatu genuen estatxa, eta ordaindu egin genuen gero".

**AGIRREK
"BORROKARAKO GOGO
HANDIAREKIN" IKUSI
DITU HARROBIKO
GAZTEAK**

**SALSAMENDIREN
IRITZIZ, AURTENGO
DENBORALDIKO
HELBURUAK BETETA
GERATU DIRA**

"Denboraldiaren balorazioa oso ona da"

IOSU ESNAOLA ORIO AE-KO PRESIDENTEA

Iosu Esnaola pozik agertu da traineru denboraldiak eman duenarekin, eta elkartean uda ondo joan dela azaldu du, kirol zein kudeaketa arloan.

Asteburu bakarra falta da traineru denboraldia bukatzeko.

Orokorrean, uda oso ona izan da guretzat. Nesken trainerua espero bezala ibili da, eta garaipen ederrak lortu dituzte. Bi urtez nagusi ibili eta gero, aurkari handi bat izan dute aurten, eta psikologikoki, oso ondo kudeatu dute Arraun Lagunekin izandako borroka. Horrek meritu ikaragarria du; are handiagoa, taldea iaz baino gazteagoa izan dela kontuan izanez gero. Hiru estropalarik egin dute debuta. Denborarekin, are gehiago baloratuko da neskek aurten lortu dutena.

Zer diozu mutilen lanaz?

Taldearen ezaugarriak erreparatuta, balio handia du aurten Ohorezko Txandan ibili izanak, onenekin borrokoan. Horrez gain, banderaren bat edo beste irabazteko aukera ere izan dute; zortea falta izan zaie estropadaren batean. Etxeko estropalariek izan dute presentziarik handiena traineruan, eta aurrera begira, horri eutsi behar diogu. Herrian ilusioa piztu du harrobiko arraunlariek goi mailan aritzeak, eta hori bada nahikoa arrazoi denboraldia ontzat emateko.

Eta bigarren txalupaz?

Aurten arraunlari kopuruz justu ibili gara gizonezkoen bi



INÍGO GAITÓN

taldeetan, eta horrek eragina izan du B taldean. Oztupoak oztupo, lortu dute hasiera batean zaila zirudien helburua: KAE1 mailan mantendu dira, astebururo tripulazioan aldaketak egiteko ia aukerarik izan gabe. Bi jubenilek debutatu dute aurten traineruan, eta liga horretan dagoen maila altua kontuan izanik, meritu doblea dute.

Zuzendaritzaren bigarren denboraldia izan da.

Proiektu bat garatzeko asmoarekin sartu ginen, eta horretan jarraitzen dugu. Pandemia dela-eta, ez zaizkigu urte onenak tokatu, baina elkarte barruko antolaketari eta gauzatu nahi ditugun proiektuei dagokienez, koska bat gora egin dugula iruditzen zait. Izurritea arindu eta gauzak normaltzen doazen heinean, fruitu gehiago jasoko ditugula iruditzen zait.

Zer helburu dituzue datozen bi urteei begira?

Bi helburu argi ditugu: batetik,

goi mailan lehiakor izaten jarraitu nahi dugu, eta bestetik, indarra eman nahi diogu arraun eskolari. Aurtengo denboraldia abiapuntu ona izan daiteke. Gaztetxoek mailetatik datozen estropalariek elkartean baloratuak direla sentitu behar dute, eta Orion estropalari handien ibilbideak egin ditzaketela. Arraun eskolak hori bultzatu behar du. Momentu honetan erreferenteak diren arraunlariak jarri nahi ditugu gaztetxoekin lanean, haien eredu izan daitezen.

Zerk kentzen dio loa Josu Esnaolari?

Kargua hartu nuenetik, gauza askok. Elkarte baten kudeaketa kanpo faktoreek eragin handia dute, eta gure esku ez dagoen hori kontrolatu ezin izatea kezka iturri izan ohi da. Bestalde, garai zailak dira enpresei eta erakundeei diru eske joateko, eta ahaztu gabe, eskerrak eman nahi dizkiet gure ondoan dauden guztiei.

"Kontxan bizitakoa ezin dut hitzez azaldu"

MIKEL LIZARRALDE ARRAUNLARIA

Espero al zenuen lehen traineruan sartzea?

Iaz, senior mailako lehen urtean, ligako azken estropada jokatzeari proposatu zidan Salsamendik. Fitxarekin arazoren bat egon zen, eta zoritxarrez, kanpoan geratu nintzen. Dena den, entrenatzaileak konfiantza hori erakutsi izanak indarra eman zidan, eta banuen negu ona egin eta lehen taldean egoteko esperantza.

Tosta desberdinetan ikusi zaitugu arraunean.

Zazpi tokitan jardun dut, eta egia esan, denetan ondo bilatu dut neure burua.



ARNAITZ RUBIO

Anaia eta lehengusua ondoan izan dituzu.

Oso berezia da haiekin arraun egitea. Anaiarekin aspalditik amesten nuen hori. Gure familia oso arraunzalea izan da, tradizio handikoa, eta oso kontentu daude, altxerritarren

kastak segida duela ikusita. Banderarik ez dugu irabazi, baina etxekoentzat sari handia da hirurok traineruan ikustea.

Kontxan ere barruan izan zinen. Zer sentitu zenuen?

Ezin dut hitzez azaldu Donostian bizitakoa. Irteeran zegoen tentsioa ez zen ligakoa, askoz ere modu intentsoagoan bizi izan nuen dena. Poz handia eman dit Kontxan parte hartu izanak.

Gazte asko ibili zarete traineruan. Urte onak etor al daitezke?

Ikasteko eta hobetzeko asko dugu gazteok oraindik. Hala ere, datozen urteetan harrobiko arraunlarien blokea mantentzeko gai bagara, ondo ibiltzeko aukerak izango ditugula iruditzen zait.

"Motibatu egin nau aurkarien mailak"

UDANE HOYOS ARRAUNLARIA

Nola bizi izan duzu traineru denboraldia?

Prestaketa eta entrenamenduen aldetik, iaz bezalaxe. Pandemiari dagokionez, iaz baino lasaiago ibili gara zorionez, ez dugu hain presente izan. Emaitei erreparatuta, aurten aurkari zuzen bat izan dugu, Arraun Lagunak, eta haiekin borrokan ibili gara.

Donostiarrekin izandako lehia zuzen horretan, sufritu eta gozatu, bietarako tartea izango zenuten.

Bai, hori da. Niretzat, motibazio handia izan da haiekin estu ibili izana.



ARNAITZ RUBIO

Gustura al zaude Kontxan egindakoarekin?

Bai. Bi igandeetan estropada oso onak egin genituela iruditzen zait. Aurrenekoan urduriago aritu ginen. Bigarrenean, oso kontzentratuta egin genuen

arraunean, baina emaitza ez zen nahi genuena izan.

Zuen artean gazte gehiago izan da aurten.

Beti da pozgarria taldean aurpegi berriak ikustea. Taldean sartu diren gazteak zoragarri ibili dira.

Zer indargune izan du taldeak?

Arraun Lagunakek gauzak zaildu dizkigun momentuetan, ez gara kikildu, eta aurrera egin dugu beti. Arlo teknikoan, arraunean oso ondo egin dugula iruditzen zait.

Aiar batzuk juntatu zarete kuadrillan.

Bai, lau guztira. Elkarrekin joaten gara entrenamenduetara, eta eskertzen da elkarri ematen diogun babesa. ■■■■



Hala ere, ez da ausardia hori erakutsi izanaren damu. "Talde gaztea izan dugu aurten, eta Donostian Ohorezko Txandan sartu izanari balio handia ematen diogu", azaldu du.

Emaitzei erreparatuta, denboraldiko helburuak bete dituztela baieztatu du. "Kontxan eta ligan Ohorezko Txandan izan gara. Denboraldi hasieran, inork ez zuen Orio bost onenen artean sartzen. Zailtasunak zailtasun, lortu dugu talde lehiakor bat garatu eta aurrean ibiltzea", esan du asebeteta.

Talde gaztea eta arina

Mutilen txalupan ere harrobiko gazte asko izan da aurten. Estropada gehienetan, traineruko bederatzi arraunlari etxekoak izan dira. Gazteen artean, lau estropalarik egin dute debuta. Taldearen egitura "berrituta" hasi zituzten entrenamenduak udazkenean. "Kuadrillaren bi ezaugarri nabarmendu behar dira: batetik, gaztetasuna. Bestetik, taldekideen batez besteko pisua. Sekula entrenatu dudan talderik arinena izan da, eta horrek, noski, ikerketak egitera behartu gaitu traineruaren neurrietan, arraunetan, arraunkeran...", azaldu du.

Pozik agertu da entrenatzailea, taldearen potentziala "zukutzen" asmatu dutela iritzita.

Inflexio puntua

Salsamendiren iritziz, arraun elkarte "inflexio puntuan" dago, gizonetzkoen lehen traineruari dagokionez. "Etxeko gazteekin aurrean ibiltzeak meritua du, baina hurrengo urtean, edo hurrengoan, zaleek eta arraunlariak gehiago nahiko dute", iragarri du.

Taldea momentu estrategiko interesgarrian dagoela iritzi dio. "Esfortzu handia eskatu du denentzat harrobikoekin aurtengo maila emateak. Orain, honi jarraipena eman eta gora begira jarri nahi badugu, banderak irabaztera, litekeena da proiektu honek muga batzuk izatea; kasu horretan, zergatik ez dugu kanpoan begiratuko? Liga irabazi zenean etxeko arraunlariak baziren, baina Pol Galdiz, Salvagno, Etxaniz, etab. ere bai. Formula egokia topatu beharko da, oreka bat, harrobiko nortasunari eutsi eta, aldi berean, talde garaile bat egin nahi bada".

KAE1 ligari eutsi diote

Elkarte batek harrobiaren aldeko apustua egiten duen edo ez jakiteko, bigarren txalupari erreparatu behar omen zaio. Aurten ere, mutilen bigarren trainerua kategoriari eusteko gai izan da, maila oso altua izan den ligan. Tripulazioetan ia aldagetak egin gabe jardun dute lehian, eta haien tartean, jubenilek ere egin dute debuta. Bederatzigarren postuan bukatu dute KAE1 liga.

Zenbaki handiak

Joxemari Olasagastik zenbaki batzuk eman ditu, elkartek aurten izandako jardueraren dimentsioa hobeto azaltzeko. Horien arabera, Orio AEk 79 jardunalditan parte hartu du —aulki mugikorreko 26tan, bateletan 11, trainerilletan 6 eta traineruan 36—. Guztira 17 bandera irabazi dira, eta urrezko 20, zilarrezko 20 eta brontzezko 17 domina. ■■■■



zainBIZI elkarte
zaintza Bizitzan

Aurkezpen egitaraua
urriak 1
16:30 - 18:00
zainBIZI elkarte berriaren lokala ikusteko **ate irekiak**.
Antxiola Kalea, 15, behea, Orio

19:00etatik aurrera
Orioko Arraun Etxean:
zainBIZI (zaintza Bizitzan) elkarte berriaren **aukezpena** eta EVIDA eskolaren **10.urteurrena** Euskadin (Orion) eta bere ibilbidea.

- Helduentzat **ipuin kontaketa** (Encarna de las Heras ipuin kontalariaaren eskutik).
- **Clown Saioa** " Violeta eta Pendula"ren eskutik.
- **Musika zuzenean**.

(Amaia Gozategi Urbietak)

Izena ematea beharrezkoa izango da lekua gordetzeko **613 02 36 18**

NON DAGO KARKARA?




Karkara pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutatuta aurkitu behar da, eta erantzuna *karkara@karkara.eus* e-posta helbidera bidali irailaren 24a baino lehen. **Saria:** Mola Mola merchandising-a. Karkarako Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.




KARKARAKo bazkide Joxemari Olasagasti Arrutik irabazi du saria: Kutixiko bi gosari eta elkarreko liburu sorta.

Kaioa etxadia, Orioren bihotzean



Inmobiliaria Oriok Orioren erdigunea eraldatuko duen proiektua aurkezten dizu: Kaioa Etxadia. Leundako eraikina dagoen tokian, **kalitate handiko 24 etxebizitza** egingo ditu, eta aldi berean, herriari onura handia ekarriko dio. Izan ere, gaur egungo eraikina botatzen dutenean, eraikin berria metro batzuk atzerago kokatuko da, ondoko eraikinekin (Kaia 3 eta 7rekin) lerrokatuta, eta ondorioz, kale berria sortuko da kofradiako eraikin berria


eta etxebizitza berrien artean. Kale berria Kaia kalearen luzapen bat izango da eta Arrantzale Kalea eta oraingo Kaia Kalea lotuko ditu. Gainera, eraikinak arkupea izango du, eta bertan lokalak egongo dira.

Hala, **espazio berri bat sortuko da herriaren bihotzean**, kokaleku ezin hobean; Kofradiako eraikin publikoaren atzean, anbulatorio, ikastetxe eta zerbitzuetatik gertu, eta ibaiaren inguruan.

Imajinatzen duzu bertan bizitzea?

Inmobiliaria Oriok bi eta hiru logelako **etxebizitza argitsuak eta garajedunak** eskaintzen ditu, denak terraza ederrekin; sukaldea ere jarrita emango


**A KALIFIKAZIOA DUTEN
24 ETXEBIZITZA EGINGO
DITUGU LEUNDA
ZEGOEN EREMUAN,
KALE BERRIA SORTUZ**



du, eta etxea pertsonalizatzeko aukera zabala emango da. Gainera, azpimarratzekoa da **A kalifikazio energetikoa** izango duela eraikiniak. Hori lortzeko, ezaugarri esanguratsuenak hauek dira: batetik, etxea berotzeko zoru irradiatzailea izango dute etxebizitzek; bestetik, aerotermia bidez lortuko dute ur bero sanitarioa eta berokuntza; gainera, fatxadak inguratzaile termiko bikaina izango du; eta azkenik, etxebizitzaren aireztapena berritzailea izango da, fluxu bikoitzekoa izango delako. Izan ere, aireztapen sistema horrek kaleko airea hartzen du, filtratu eta berotu egiten du, eta ondoren, etxe barruan askatzen du aire garbi hori. Bestalde, etxe barrutik ere sistemara eramaten du airea, kaletik sartzen den airearen temperatura orekatuz. Horregatik, etxea aireztatzeko leihoa zabaltzea ez da beharrezkoa izango Kaioa Etxadian, energia aurreztuz eta aire osasungarriagoa arnastuz.

Kaioa Etxadia gertuagotik ezagutzeko, jarri gurekin harremanetan.

Azken 56 urteetan bezala, Inmobiliaria Oriok jarraituko du lanean Orion, besteak beste Diken egingo diren etxebizitzetan. ■■■



Nafarroa Kalea, 13 (provisionalki)
Bizkaia Kalea, 11)
20800 Zarautz
943 - 89 44 33
info@kaioaetxadia.com
www.kaioaetxadia.com

AIAR *bat gehiago*



**BATU KARKARAREN PROIEKTURA,
BATZEN GAITUENA GARA!**

Egin zure ekarpena: bazkide@ukt.eus - 943-81 38 41

Ardura soziala



EGOITZ DORRONSORO TABOADA

Jan, kaka eta lo egiten dugu lanak uzten digun neurrian... Hala zioen Erantzun talde zarauztarrak. Ez zaie arrazoirik falta, pandemia garai hauetan batez ere. Harreman sozialak murriztuz, lanetik etxera eta alderantziz ibil gaitzean izan da agintarien helburua. Bitartean, mezuz bonbardatu gaituzte. Uda honetan haserretu nauen mezua hau izan da: "Txertoa kontzientzia sozialagatik hartu behar da, solidaritatez". Eta gizarteak, nola ez, sinetsi. Nire helburua ez da txertoa zalantzan ipintzea, baina bai, hau hartu ez dutenak salatzeako arrazoiak ezbaian jartzea.

Solidarioa da txertoa hartzea eta, aldi berean, txertoa hartu ez dutenei/dugunoi insolidario, berekoi zein arduragabe esaten zaigu. Hori bai, solidarioak gara, behar gehiena duten herrialdeei haien dosiak ukatu eta gure ipurdi zuriak babestu ondoren. Eredugarriagoa delako, europarron pribilegioek iraun dezaten, hemengo gazteak txertatzea, txertaketa kanpaina zalantzan ipintzea baino. Zertarako kezkatu beste herrialdeez (haietara oportetara ez bagoaz behintzat), Domund Egunean elizan *beltzei* laguntzeko dirudun gutun-azal bat sartu eta elizaren barkazioa badugu? Edo GKE baten partaidetza ordaintzen badugu? Printzipioak zurito baten prezioan saltzen dira hemen.

Pentsa, etikaz hitz egin dezake txertoa hartu eta aldi berean Orioko bere bigarren etxea Airbnb-n alokatzen duenak. Nola ez, txertoa hartzean zure ekintza solidario eta arduratsua egin duzu, baina bigarren etxea ez badiezu turistei alokatzen, diru iturri galanta galduz, tontoa zara. Hori bai, ez du axola, herriko etxebizitzaren prezioa putzeak, herritarrei alokairu duin baterako aukerak kentzeak, gazteen emantzipazio ezintasunean laguntzeak... Hots, gentrifikazioa bultzatzeak. Airbnbn etxea ipintzeak ere ahalbideratzen duelako eskualdean lan egin eta etxebizitza prezio duinean ezin lortzea. Gaira itzuliz, badirudi gizartearekin arduratsua zarela soilik txertoa jarrita, nahiz eta haragia eta arraina jan. Bada, bi hauen kontsumoa da, klima aldaketa gauzatu dadin giltzarri diren berotegi efektuko gasak, deforestazioa eta itsasoak kutsatzeko biderik nabarmenena.

Besterik gabe, zalantzan ipini komunikabideetatik (nirea ere bai) eta sare sozialetatik datozen mezuak, eta erlatibizatu egoerak, pertsonak epaitu baino lehen. Kasu honetan, ardura sozialak kezkatzeko bagaitu eta helburua komunitatea/gizartea zaintzea bada, txertoa bezain garrantzitsuak edo garrantzitsuagoak diren ekintzak, jarrerak eta borrokak badaudela iruditzen zait. Edo, behintzat, mahai gainean ipini beharko genuke zer den arduratsua izatea, mundua eta ingurukoak zaintzeko. Errua ez du beti sistemak izango, guk jokabide berdinak errepikatu besterik egiten ez badugu. ■■■

**TXERTO A HARTU EZ
DUTENAK SALATZEKO
ARRAZOIAK EZBAIAN
JARRI BEHAR DIRELA
USTE DUT**



Portu
Erreteta - Jaitetxea

Kazolirik, baserriko oilaskoa,
parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g - AIA
943-89 44 34



Sagasti
LEIHOAK

Tel: 943-13 00 77 - Fax 943-53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Eusko Gudari, 7
20810 Orio

Kalitazteko materialak
PVC eta aluminioa • Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua

Roberto Sagasti



BODEGON
Sarasua

info@bodegonsarasua.es | www.bodegonsarasua.com | Erreserbak: 943-83 00 05



Seguros
Bilbao

Santi Barranco
Orioko Ordezkarria


Endaia Enparantza, 1 • ORIO • sbarranco@segurosbilbao.com
943-11 16 00 • 688 71 48 69



ORANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

Eusko Gudari, 5 • ORIO • 943-83 12 36



Sinergia
fisioterapia eta ikerkuntza

Ibai ondo, 1 behea • ORIO
943-13 05 77 • 685 71 85 95
sinergiafisioterapia.com

- **Lesioak:** bihurdurak, tendinitisiak, zaintiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaixotasunak haur eta helduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekupeazioa.
- **Tratamenduak:** terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesiopina, pilates, abdominaletako gimnasia hipopresiboa (GAH), REDCORD.



Orioko
Herri
Ikastola
ORIO GARA

Abeslari kalea, 8
943-83 47 04
Fax-a: 943-13 09 38
orio@ikastola.eus
www.oriokoikastola.eus



Oreaka
fisioterapia

Eusko Gudari, 54 • 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa
Eskuzko terapia • Talka-uhinak
Masaje terapeutikoa • Osteopatia



SU
KIA
TABERNA • JAITETXEA

Eguneko menua
Asteburuetakoa
Oilaskoak eramateko
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Terraza ederra
(alboan umeentzako parkea)

Abaromendi 38, behea 1
ORIO • 943-89 21 29



Zaragueta IPI
HERRI ESKOLA 2-16

943-89 92 43
012137aa@hezkuntza.net

Iraila, aldapan gora



LEIRE VITORIA

HEZITZAILEA

Ohartzerako iritsi da iraila —ia urtero gertatzen den modura—, eta dagoeneko, bukatu dira oporrak heldu eta haur gehienentzat. Lanera bueltatu dira batzuk, eta eskolara edo haur eskolara, besteak.

Etxe askotan, aldapa gora oinez hastea bezalakoxea izaten da kurtsoari berriro ekitea, eta guraso zein seme-alabei kostatzen zaie martxa hartzen hastea. Udan denbora libre askorekin eta ordutegirik gabe ibiltzen gara, patxada ederrean, eta orain, goizero iratzargailuarekin esnatzea tokatzen zaigu. Artikulu honetan, jarraibide batzuk ematen saiatuko naiz, ikasturte berriaren errutinara itzultzea errazteko asmoz.

Udako opor luzeen ondoren, haur batzuei zaila egiten zaie eskolako eguneroko martxara egokitzea. Are zailagoa izaten da hori eskolara edo haur eskolara lehen aldiz joaten direnentzat. Ikasturteko lehen astean etxean kaos sentsazioa egotea normalizat jo beharko genuke, familiako kide bakoitzak bere denbora beharko duelako errutina berrira egokitzeko. Beraz, lehenik eta behin, lasai hartu eta ez kezkatu, iraileko eromen sentsazioa etxe askotan gertatzen den zerbait baita, oso ohikoa, eta normala ere bai, hein handi batean.

Familietan izaten diren liskar eta egonezin asko eguneroko bizitzaren antolaketa desegokiaren ondorio zuzena direnez, horiek saihesteko, ikasturte berri bati ekiterakoan garrantzitsua da ondo zehaztea etxeko kide bakoitzaren errutinak eta ordutegiak.

Antolaketa hori egiterakoan, denbora-tarteekin zabal jotzea da onena. Beti izaten dira ezustekoak haurrekin goizean goiz etxetik ateratzerakoan — gosaltzerakoan, janzterakoan, hortzak garbitzerakoan...—, eta hobe izaten da loari minutu batzuk kendu, goizago jaiki eta lasai ibiltzea. Umeek beren denbora behar izaten dute, eta haien erritmora egokitzea tokatzen zaigu helduoi, eta ez alderantziz. "Esnatu!", "mugitu!", "azkarrago ibili" eta halako aginduek ez dute ezertan laguntzen, eta giroa petraltzen dute. Ohetik jaiki eta eskolara iristerainoko denbora tartea ahalik eta atseginena izan dadin saiatu behar dugu, askotan zaila bada ere.

Goizetan denbora irabazteko gakoetako bat da bezperatik

**OSO GARRANTZITSUA
DA HAURREKIN
PAZIENTZIAZ ETA
GOXOTASUNEZ
JOKATZEA**

gauzak prest uztea: janaria, eskolara edo lanera eraman behar diren gauzen zerrenda, arropak... Horrek lasaiago lo egiten eta esnatzen lagunduko digu, eta azken momentuan ezer ez ahazten. Hala, goizean haurarekin egingo dugun denboraren kalitatea ere are hobea izango da.

Haurrak garaiz ibiltzeko, udako ordutegiak poliki-poliki aldatzen joatea litzateke egokiena. Oporretako azken egunetan has gaitzeko ikasturteko ordutegietara apurka moldatzen, ordutegiak egun batetik bestera asko aldatzeak eragin kaltegarria izan dezakeelako haurren emozioetan. Ikasturtearen hasiera baino egun batzuk lehenago aldaketa txikiak egiten hastea da onena, eguneko jarduerak 10-15 minutu aurreratuz egunero.

Ikasturte berri baten atarian, kezka eta urduritasuna izaten dira haur askorengan, eta gurasoak ondoan sentitu behar ditu. Oso garrantzitsua da pazientzia eta goxotasunez jokatzeko, eta haurrei haien egonezina ulertzen dugula adieraztea, sufrimendua leuntzen laguntzeko. Patxadarekin hartu behar da ikasturte berriaren hasiera, eta denborarekin, haurrak seguruago eta lasaiago sentitzen joango dira. Dena iristen da! ■■■

BODEGAS

Gailur

01307 BANCOS de EBRO
Tel./Fax: 945 00 91 58
www.bodegagailur.com
Arabar Errioxa

ZUDUGARAI



Galeria Txakolina
BARRIOALDEAN DE ORIO

Tel.: 943-83 03 85 - Fax-a: 943-83 59 52
txakolizudugarai@euskalnet.net www.txakolizudugarai.com

K-U-K-U-A-R-R-I
ELEKTRIZITATEA

943-10 01 81 • 640 28 13 08
Zigordia, 52 behe C • ZARAUZ
kukuarri@kukuarri.com



Usurbil Autoak

TXAPA-PINTURA-MEKANIKA

30 URTE ZERBITZUAN

DESINFEKZIO GUNEA

**ESKATU AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE!**

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA, USURBIL 943 36 10 79

Ttapi

Eusko Gudarien, 15
ORIO

943-25 96 95

ttapa



XIXARIO
Erretegia

Txuleta eta arrainak
parrillan

Eusko Gudarien kalea 2 • ORIO • 943-83 00 19

Xarkitektura www.xsarkitektura.com

herrikobarra, 11 behe • ZARAUZ • 943-13 43 58

eraikuntza zerbitzuak
eraikinen mantenua
errehabilitazioak
proiektuak
txostenak
ITE-ak
obrak



ZINKU
ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzaren erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

*deitu eta eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe*

Ander Zinkunegi
667 74 02 79



Zarauz

Hileta Zerbitzuak

1962. urtetik zure zerbitzura

24 ordu zure zerbitzura
Beilatokia • Lekualdatzeak •
Eginbide guztien tramitazioa

Araba kalea 35 • ZARAUZ
943-89 49 37
info@zarautzhiletazerbitzuak.eus



Euskararen egoerari dagokionez, nolako Orio nahi dugu 10 urte barru? (I)



TESTUA: ORAIN HERRI PLATAFORMA

Euskara batua sortzea eta hezurmamitzea ezinbestekoa izan zen, ordura arte euskalkietan barreiatuta zegoen hizkuntzak bizirik iraun zezan. Mende erdia pasatu da ordutik, eta oraindik, orduko adituek —Koldo Mitxelena, Gabriel Aresti, Txillardegia, Aita Villasante...— egin zuten lan eskergaren itzalpean jarraitzen dugu.

Belaunaldi horrek, hainbat egitura sortuz, sendotuz eta iraunaraziz, euskararen eta euskalzaletasunaren gaineko pentsamendu eta praktika berri bat ekarri zuen, hizkuntza modernizatuz.

Joan Mari Torrealdairen hitzetan, hizkuntza batek aurrera egiteko egitura sozialak, kulturalak eta politikoak behar ditu, eta, bereziki, hizkuntz politika ausartak. Ausardia irudimentsuaz jokatu beharko genuke, gai serioekin jolastuz bezala.

Mundu globalizatu eta digital honetan gero eta zailagoa da belaunaldi berriengana iristea, baina garbi dago belaunaldi bakoitzak egin behar duela garaian garaiko bere bidea.

Orioko zatitxo baten isla garen neurrian, serio jolastuz eta irudimentsu jokatzuz, euskararen transmisioan eta erabileran politika publiko ausartekin, Orion euskaraz bizi nahi dugu hemendik 10 urtera, orain arte bezala edo gehiago, ahal bada. ■■■



TESTUA: ORIOKO PSE-EE

Hemendik hamar urtera Orion euskararen egoera nolakoa izango den jakitea zaila da, besteak beste, kanpoko faktoreek eragina izango dutelako, onerako eta txarrerako. Orio hazten ari den herria da, bai hirigintza arloan, bai biztanle kopuruari dagokionez. Hazkunde hori are modu nabarmenagoan antzemango da datozen urteetan. Kanpotik etorriko diren askok ez dute euskara jakingo, edo jakin arren, ez dute egunerokoan erabiliko. Horri buelta emateko, nahitaezkoa da udalak eta eragileek euskararen erabilera indartzea.

Orioko Udalak euskararen aldeko jarrera eta politika irmoak ditu. Udal euskaltegia herritarren eskura dago, eta bestalde, diruz laguntzen dira eskolak, komertzioak, turismoa etab. haietan euskarak presentzia handiagoa izan dezan.

Momentu honetan, euskararen gaineko proiektu estrategiko bat lantzen ari gara udalean. Horri esker, euskararen arloan izan ditzakegun premien inguruko neurriak hartzeko gai izango gara, begia etorkizunean jarrita; zehazki, hamar urteko epean.

Euskara da Orioren eta oriotarren bizitzeko arnasa, eta denon indarrarekin eta ahaleginarekin, hamar urte barru halaxe izaten jarraituko du: euskaraz eta euskararentzat bizi den herria izango gara. ■■■

Sarea

Arrain honek mugimendu jakin batzuk egin behar ditu laukiz lauki, sarean harrapatuta ez gelditzeko: hiru aurrera, bi behera, hiru aurrera, bi behera... horrela etengabe joan beharra dauka, irteerara iritsi arte. Baina nondik hasiko da? Zein zirrikitutatik joan beharko du? Lau dituzu aukerak.



- 1 →
- 2 →
- 3 →
- 4 →



MARIPURTZIL!
POZIK ITZULI
ZARA ESKOLARA,
EZTA?



Sudokua

Bai, haserre dago, baina lasai, berehala ahaztuko zaio. Bete ezazu sudokua, ESKOLA hitza osatzen duten hizkien bidez (E, S, K, O, L eta A). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Zaku Lasterketa


Lehen iruditik bigarrenera

bospasei segundoko aldea besterik ez dago, baina tarte horretan gauza asko aldatu dira, ezta? Horrez gain, elementu bat desagertu da eta elementu berri bat ere agertu da. Ikusten al dituzu?



Hamabostekoa

Bai ederrak garai bateko hilarriak. Irudi honetan, ezkerre eta eskuine ez dira erabat simetrikoak. Bila itzazu bien artean dauden aldeak. Hamabost dira guztira.



Mezu gordeak

Erabili marrazkitxoen alfabetoa eta pertsonaia bakoitzak zer dioten jakingo duzu. Esaldi horietako bat esaera zahar bat da, zein da?

1. _____
2. _____
3. _____
4. _____

ALFABETOA															
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P
Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	.	:	!	?	+	%

Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

IRAGARKI SAILKATUAK

ALOKAIRUA

Autokarabana eta karabanentzat aparkalekuak alokagai, garaje estalia eta beharrezko ekipamendua- rekin. Aia-Orio. Telefonoa: 620 85 69 53 (goizez).

Alokatzeko garaje bila Goiko Kalen. Telefonoa: 690 27 28 42.

Garaje bat alokatzen da Anibarko Portuan. Telefonoa: 649 22 87 87.

Bikote jator batentzako etxe polita alokatzen dute Orion. Telefonoa: 722 33 09 07.

Garaje ibxia alokagai Orion, Baxoalde kalean. Informazio gehiagorako, deitu 615 15 03 14 zembakira.

LAN BILA

Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketari lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Telefonoa: 642 69 60 38.

Lan bila nabil, etxe garbiketari egiteko prest. Telefonoa: 641 44 60 70.

Etxe lanak egiteko edo zaintzan lan egiteko prest nago. Telefonoa: 631 82 44 52.

Lan bila dabilen emakumea naiz. Bikaina naiz haurrak zaintzen, eta garrantzi handia ematen diot garbitasunari eta txukuntasunari. Arduratsua naiz, eta arreta handia jartzen dut nire lanean. Berehala lanean hasteko prest nago. Telefonoa: 602 08 98 86.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. Barneko zein kanpoko langile bezala, edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Samanda. Telefonoa: 643 85 78 54.

Iragarkietarako bokoak. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943-83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Emakumea adineko pertsonak zaintzeko edo orduka lan egiteko prest. Harremanetarako deitu honako telefono zembakira: 697 65 05 19.

Ingeleseko klase partikularrik emateko prest nago. 20 urteko neska oriotarra naiz, ordutegi malgua daukat. Telefonoa: 690 06 63 11.

Emakume gaztea etxeko lanak, garbiketak edo tabernako lanak egiteko eskaintzen da. Egun osoa edo orduka. Telefonoa: 627 09 07 06.

16 urteko neska, udaran partikularrik emateko prest. LHko edozein ikasgai, musika eta ingelesa barne. Telefonoa: 688 73 00 90. Arantza.

21 urte dituen Orioko neska bat naiz. Udan goizez haurrak zaintzeko prest nago. Asko gustatzen zaizkit haurrak eta primeran moldatzen naiz beraiekin. Interesatuak deitu honako telefono zembakira: 629 21 28 38.

Neska gaztea haurrak eta adinekoak zaintzeko prest, irailetik aurrera. Esperientzia dut zeregin horretan eta baita prestutasun osoa ere. Jarri harremanetan honako telefono zembakira: 695 37 82 60. Estrella Reyes.

SALGAI

Olaciregi txipironera salgai. Suzuki DFIS motorra. Abendura arte aseguru ordaindua du. 3.500 euro. Telefonoa: 657 77 45 11.

Zerrama, apotea eta txerrikumeak salgai Usurbileko baserri batean. Interesik izanez gero deitu 607 66 86 03 zembakira. Joxe Krux.

BESTELAKOAK

Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin du zer egoeratan dagoen: ITVa pasa gabe, kolpeekin, aberiatuta... Telefonoa: 623 17 95 37.

Orion bizi den familia bat autokontsumorako baratze ekologiko bat egiteko lurzoru baten bila dabil alokairuan Orion edo inguruan. Telefonoa: 657 71 96 14.

ITSASOA

Eguna	Itsasgora	Itsasbehera	Ilargia
1	00:20 eta 13:04	06:30 eta 19:31	☾
2	01:49 eta 14:19	07:54 eta 20:41	☾
3	02:53 eta 15:12	08:54 eta 21:30	☾
4	03:40 eta 15:55	09:39 eta 22:10	☾
5	04:19 eta 16:32	10:17 eta 22:46	☾
6	04:55 eta 17:08	10:52 eta 23:20	☾
7	05:30 eta 17:44	11:28 eta 23:55	☾
8	06:06 eta 18:20	12:04	☾
9	06:42 eta 18:56	00:31 eta 12:42	☾
10	07:20 eta 19:39	01:08 eta 13:22	☾
11	08:01 eta 20:22	01:49 eta 14:05	☾
12	08:46 eta 21:12	02:32 eta 14:53	☾
13	09:41 eta 22:14	03:22 eta 15:50	☾
14	10:54 eta 23:42	04:25 eta 17:05	☾
15	12:27	05:48 eta 18:39	☾
16	01:26 eta 13:54	07:23 eta 20:08	☾
17	02:44 eta 15:01	08:38 eta 21:13	☾
18	03:40 eta 15:52	09:32 eta 22:02	☾
19	04:24 eta 16:34	10:16 eta 22:42	☾
20	05:01 eta 17:12	10:54 eta 23:18	☾
21	05:34 eta 17:46	11:30 eta 23:52	☾
22	06:05 eta 18:19	12:04	☾
23	06:34 eta 18:50	00:24 eta 12:38	☾
24	07:03 eta 19:21	00:56 eta 13:11	☾
25	04:45 eta 17:07	01:27 eta 13:44	☾
26	07:32 eta 19:53	01:58 eta 14:19	☾
27	08:38 eta 21:07	02:32 eta 14:58	☾
28	09:24 eta 22:03	03:11 eta 15:49	☾
29	10:33 eta 23:31	04:06 eta 17:07	☾
30	12:13	05:34 eta 18:49	☾

FARMAZIAK-IRAILA

ZARAUTZ

ETXEBERRIA: Gipuzkoa kalea, 17 / 943-83 23 98	
ESPARZA: Santuturri plaza, 5-6 / 943-50 47 83	
27 eta 29.	GALLO: Zigorandia kalea, 17 / 943-13 40 19
17, 23 eta 24.	GARMINDE: Gipuzkoa kalea, 68 / 943-12 40 19
21 eta 28.	IRIARTE: Zinkunegi, Pilarxo Enea / 943-13 29 70
20, 22, 25 eta 26.	ITURRIA: Kale Nagusia, 12 / 943-83 29 70
18, 19 eta 30.	LARRAÑAGA: S. Frantzisko, 16 / 943-13 38 14
REDONDO: Urdaneta kalea, 8 / 943-13 31 83	
ZULAIKA: Bizkaia kalea, 41 / 943-13 39 94	

AGENDA

ORIO

IRAILAK 6-30

Erakusketa: Manu Urbietaren eskultura eta pintura lanak.

Kultur Etxeko areto nagusian, 10:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30.

URRIAK 4, ASTELEHENA

Ipuin kontaketa: Miriam Mendoza. *Kultur Etxeko areto nagusian, 17:00etan.*

URRIAK 15, OSTIRALA

Txomin Artolaren kontzertua. *Arraunetxeko aretoan, 19:00etan.*

URRIAK 29, OSTIRALA

Antzerkia: Jon Plazaola, Irabazi. *Arraunetxeko aretoan, 19:00etan.*



AIA

IRAILAK 18, LARUNBATA

Ikuskizuna: Kukai dantza taldea. *Probaleku Aretoan, 22:30ean.*



EUSKARA, BIHOTZETIK EZPAINETARA

Barruan daramazu kirol zaletasuna, onena emateko gaitasuna, ahaleginduz gozatzekoa. Eta barruan daramazu euskara ere, kirola barrutik bizitzeko.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Puntua jarrita

Josu Arruti.
(Doinua: Haizeak bidali du).

1

**Kakoak zorrozuta
hegaluze bila.**

Kakoak zorrozuta
hegaluze bila
aurtengo urtea ere
ona tokatu da(d)ila.
Hegaluzia dago
jesukriston pila
gure kosta aldera
gertu(r)atu da(d)ila.

2

Urte erdia joanda
udara badoa,
lanak bukatzeko
badaukat gogoia.
Burua daukagu
fuerte ta sanaia,
aurten aurtengoa
ta hobeto geroa.

3

Han gaudenean gutxi
gukin gogoratzen.
Gero, mugimendua
hasten da girotzen.
Hegaluzia degu
denok desi(r)atzen,
ea hasten diran
diru gehi(ag)o pa(ga)tzen.

Hurrengo bertsolaria:

Josu Iribar.

Puntua:

Zer moduz joan zaizu
aurtengo udara?

Hasi Bertsotan atalean puntuka ariko dira bertsolariak. Oraingoan Josu Arrutiri jarri dio puntua Ibai Esoainek: "Kakoak zorrozuta hegaluze bila". Hurrengoari ere jarri dio puntua.

NAIARA LARRAÑAGA



**Ikasi euskara,
bidelagun
onenarekin**



Ikas Eratzun Urtzeljerra eta Kike Palma
Huele AEK-ko irakaslea eta ikaslea

Urola Kostako AEK

Matrikula zabalik, irailaren 4tik 22ra

zarautz@aek.eus · 943-13 01 75

azkoitia@aek.eus · 943-15 10 89

zumaia@aek.eus · 943-86 02 48

orio@aek.eus · 670 42 00 25

zestoa@aek.eus · 670 42 00 48

DIRULAGUNTZAK